

## Batzorde antolatzailea

Arturo Apraiz

Ane García-Artola

Karmele Urtiaga

GEOLOGIA SAILA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
UPV/EHU

## Entitate laguntzaileak



MUSEO DE  
LA MINERÍA  
DEL PAÍS VASCO

MEATZARITZAREN  
MUSEOA FUNDAZIOA



**EVE** | Ente Vasco  
de la Energía



**Geoparkea**  
Euskal Kostaldea - Costa Vasca




eman ta zabal zazu  
  
Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ZIENTZIA  
ETA TEKNOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIA  
Y TECNOLOGÍA

# Euskal Herriko Geologiako XIII. Olinpiada 2021ko martxoak 12



Argazkiak: Flysch Beltzeko hainbat ezaugarri geologiko

Izen-ematea martxoaren 10a arte  
Proba teorikoa, praktikoa eta  
finala: Martxoak 12

## Helburuak

Lurraren gainean bizi garen arren, oraindik ere, gizateriaren gehiengo batentzat oso ezezaguna da. Geologiaren laguntzarekin gure Planeta ezagutzen eta bertan gertatu eta gertatzen diren prozesuak ulertzen ikasten dugu. Geologiaren Olinpiada honekin DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleengan zientzia honen ezagupena garatu nahi dugu, bere aplikazioak gaur egun duten eta etorkizunean izan dezakeen eraginaz ohar daitezzen.



## Parte-hartzaileak

Parte hartu ahal izango dute 2020/2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko DBH-ko 4. mailako edo batxilergoan matrikulatutako ikasleak, 19 urte bete ez dutenak.

## Izen-ematea

Parte hartu nahi duten ikastetxeek izena eman dezakete edo zuzenean eskaera-orri bat bidali ([arturo.apraiz@ehu.eus](mailto:arturo.apraiz@ehu.eus)) posta elektronikoa. Eskaera-orrian agertu behar diren datuak ondorengoak dira: ikasleen eta irakaslearen izen-abizenak eta NAN zenbakia, ikastegiko izena eta helbidea, harremanetarako e-mail bat eta ikastetxeko zuzendariaren oniritzia ere.

**Izen-emateko epea 2021ko martxoaren 10an bukatuko da**

## Garapena

Proba teorikoan DBH-ko laugarren mailako eta Batxilergoko edukietatik ateratako 50 test-moduko galderak izango dira. Proba praktikoa 12 laginekin osatuta egongo da eta arroka, mineral eta fosil ezberdinak identifikatu beharko dira. Galderak erantzun bakuneko test-modukoak izango dira.

Ondoren, atsedenaldi baten ostean, emaitz onenak lortu dituzten bost ikasle aukeratuko dira eta galdera-erantzunen joku bat egingo da parte hartu duten ikasle guztien aurrean. Denei galdera berdinak egingo zaizkie eta akatsak batu egingo dira. Bost akats egiten duen ikaslea eliminatu egingo da, ikasle bakarra gelditu arte.

## Hurrengo urratsak

Txapeldunak Euskadi ordezkatzeko du Olinpiadako fase nazionalen. Fase nazional eta internazionalari buruzko informazio gehiago lortzeko sartu asepteko web orrian: <http://www.aepect.org>

## Proben tokia eta data:

Tokia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea UPV/EHU. Leioako Kanpusa. Sarriena auzoa z.g. Leioa (Bizkaia).

Data: 2021ko martxoak 12. Atal teorikoa (10:00), praktikoa (10:45), eta eliminazio-jokua (12:00).

Baldintzak: Froga era presentzian baino ez da egingo, pandemiarekin lotutako baldintzak egokiak badira baino ez da burutuko.

## Sariak

Olinpiada irabazten duten ikasleek, Olinpiadako fase nazionalera joateko aukera izango dute gasturik gabe. **Geogarapenek** lehen hiru ikasleei eta beraiekin joan daitezkeen beste bi pertsoneri Euskal Kostaldeko Geoparkeko flysch-a ikusteko itsasontziz bisita gidatua eskaintzen die. **Euskal Herriko meatzaritzaren museoak** sarrerak banatuko ditu partaideen artean. **Energiaren Euskal Enteak** (EVE) propagandazko kamisetak eta poltsak banatuko ditu partaideen artean. Gainera, Zientzia eta Teknologia Fakultateak diploma bat emango die parte hartu duten ikasle guztiei.